

**KIROLETAKO UDAL INSTITUTUAREN ARTEZKARITZA
KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA**

Saioaren izaera eta zenbakia: Ezohikoa 2020/6

Data: 2020ko urriaren 30a

Hasiera-ordua: 12:00

Bukaera-ordua: 12:20

Tokia: Santurtziko udaletxearen batzorde aretoa

Bertaratutakoak

Presidentea

Danel Bringas Egilior jn.

Bokalak

Eusko Abertzaleak Udal Taldea (EAJ-PNV)

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn.

Itziar Carrocera Fernández and.

Cristina Azpiolea Veiga and.

Gorka Txarte jn.

Joseba Ramos Arias jn.

Sozialistak Udal Taldea (PSE-EE-PSOE)

Itziar Utrera Pérez and.

Juan Andrades García jn.

Olga Pastor Albizu and.

EH Bildu Santurtzi Udal Taldea

Amaia Ginea Mardones and.

Jose Ignacio Martín Haba jn.

Elkarrekin-Podemos-Ezker Anitza Equo Udal Taldea

Ainhoa Lopera Corada and.

Autonomiadun Erakundearen zuzendaria: Bonifacio Teruelo Ferreras jn.

Kontu hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordea: José Fernando García Pañeda jn

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1. SANTURTZIKO KIROLETAKO UDAL INSTITUTUAREN 2021. EKITALDIRAKO AURREKONTU-PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du eta autonomiadun erakundeak 2021. ekitaldirako duen Aurrekontu-proiektuaren alderdi garrantzitsuenak azaldu ditu, kontseilukideei aldeztu aurretik helarazitako informazioari jarraituz.

Parte hartzeko txandean ostean, jasotzat eman da.

2. SANTURTZIKO KIROLETAKO UDAL INSTITUTUAREN 2021. EKITALDIRAKO AURREKONTUA PROPOSATZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.

Kontseiluburu jaunak gai-zerrendako puntuan adierazitako erabakiaren bozketa zuzendu du.

Kontseiluburu jaunak eta Euskal Abertzaleak eta Euskal Sozialistak udal Taldeetako ordezkariak aldeko botoa eman dute (bederatzi boto), EHBildu eta Elkarrekin Podemos Udal Taldeetako ordezkariak, berriz, abstentzioa agertu dute (hiru boto). Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du Santurtziko Kiroletako Udal Institutuaren 2021. ekitaldirako aurrekontu proiektua onartzea.

3. SANTURTZIKO KIROLETAKO UDAL INSTITUTUAREN LANGILEEN PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA PROPOSATZEA, IRIZPENA EMATEA ETA UDALEKO KULTURA ETA EUSKARA ARLORA BIDALTZEA.

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du eta autonomiadun erakundeak 2021. ekitaldirako duen langileen plantillari eta lanpostuen zerrendari buruzko aurrekontu-dokumentuak azaldu ditu, kontseilukideei aldeztu aurretik helarazitako informazioari jarraituz.

Parte hartzeko txandak amaituta, kontseiluburu jaunak erabakiari buruzko bozketa egin du.

Kontseiluburu jaunak eta Euskal Abertzaleak eta Euskal Sozialistak udal Taldeetako ordezkariak aldeko botoa eman dute (bederatzi boto), EHBildu eta Elkarrekin Podemos Udal Taldeetako ordezkariak, berriz, abstentzioa agertu dute (hiru boto). Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du Santurtziko Kiroletako Udal Institutuaren Langileen Plantilla eta Lanpostuen zerrendarako proiektua onartzea.

Saioaren grabazio osoa honako esteka honetan entzun daiteke:
<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/g8rFtwjW7JAWwyy>

Jorrazeko gai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egun eta orduan. Eta nik, organo honen idazkari eskuorde naizen honek hau guztiau ziurtatu egiten dut.